

Euskara XX. mendeko testuliburuaren arabera

Begoña Bilbao Bilbao

Euskal Herriko Unibertsitatea

Didaktika eta Eskola Antolakuntza saila
topbibib@lg.ehu.es

Abstract

In this work the author discusses what has been published about Basque language (Euskera) in school textbooks, particularly in the ones published in the XX century for Basque schools to cover the so-called “Ingurunearen Ezaguera” (Environment) knowledge area. At the beginning of the century, Basque language was linked to the Basque Country, and all contents were developed from the idea of language as sustenance of the country. In the 1980s new perspectives appeared that subsequently would play a major role. From then on Basque language was defined according to the political organization of the territory, as the Basque Autonomous Community and the Foral Community of Navarre were established. When dealing with the Basque Country and its particular features, textbooks resort to political viewpoints, avoiding the sociocultural nature of those contents.

Laburpena

Lan honetan begiratzen dugu, testuliburuetan euskarari buruz azaltzen dena, hain zuzen ere, XX. mendeko Euskal Herriko eskoletan Ingurunearen Ezaguera deritzon ezagutza arloa lantzeko argitaratu diren testuliburuetan. Mendearen hasierakoetan euskara Euskal Herriarekin lotzen da, Euskal Herria oinarri izanik edukiak garatzeko. 1980ko hamarkadak ikuspegi berriak ekarriko ditu, handik gora funtsezkoak izango direnak. Euskara lurraldearen antolaketa politikoaren arabera definitzen da, EAE edo Nafarroako Erkidegoak mugatuz. Euskal Herria eta berari dagozkion ezaugarriak jorratzerakoan molde politikoa darabilte testuliburuak, eduki horien izaera soziokulturala saihestuz.

Hitz gakoak: Euskara, testuliburu curriculum, ingurunearen ezaguera.

1. Sarrera

Hizkuntza eta kultura landu beharreko eduki moduan agertzen dira curriculum ofizialetan, *Ingurunearen Ezaguera* deritzogun arloaren barruan. Euskara arloko eduki ofizialetan, ordea, ez da euskararen beraren gaineko azalpenik ematen, ez eta euskal kulturari buruzko aipamenik agertzen, hizkuntza bera irakaste-ikastea delako helburua. Hala ere, argialetxe batzuek arlo honetan lantzen dute hizkuntzaren kontzeptua, dela euskararen mapaz baliaturik, dela euskararen garapenaren bidez edo atzerapenaren bitartez. Jakinaren gainean egon arren, ez da gure helburua arlo berezi horretan irakasten dena aztertzea, ikaslearen ingurua nola definitzen edo mugatzen den jakitea baino.

Ingurunearen Ezaguera arloan ezeze beste arlo batzuetan ere hizkuntza landu arren, interes berezia dauka guretzat euskarari buruz esaten denak: euskara zer den, nondik datorren, gaurko euskara, lehengoa, euskalkiak eta abar. Beti ere euskararen gaineko kontzeptualizazioa nola egiten den aztertzeke helburuarekin.

Euskal kultura gai berezi moduan, 1990eko hezkuntzaren berrikuntzaren ondorioz lantzen da Espainiako legediaren menpe dauden eskoletan. Harrezkero, Hegoaldeko curriculum ofizialetan bideratzen den eta horien zehaztapena diren testuliburuetan jorratzen da gai hau. Iparraldeko legedian, aldiz, ez da horrelakorik agertzen, aukerakoa

den erregioko hizkuntza eta kultura gaiaren barruan ez bada.

Hegoaldeko curriculum ofizialak euskal kulturari buruzko edukiaren gainean dioena, bosgarren mailako liburuetan zehazten da, kasurik gehienetan.

Euskara aztergaitzat hartuta, liburuetan modu desberdinez agertzen da aroen arabera, sasoiari sasoiko curriculumaren eragina nabarmena izanik. Lehenengo multzoan, mende hasieratik 1970a bitartean argitaratutakoak arakatu ditugu, data honek Hegoaldeko ekoizpenaren gorabidea markatzen duelako, eta euskal liburugintzaren erritmoa Hegoaldeak daramalako. Bigarren epea, 1990eko lege aldaketak mugatzen du. Beraz, orain ere Hegoalde nabarmentzen zaigu, Iparraldean lehengotan jarraitzen da-eta. Hirugarren epea mendearen azken hamarkadak mugarrizten du.

Liburuaren ezaugarri orokorrak aldatuz joan diren neurrian, ikasi beharreko gaiak eta gaiok plazaratzeko moduak ere aldatu egin dira. Euskarari buruz esaten direnak ez dira berberak orain edo hasierako liburuetan; ez da modu berean definitzen, ez dira aspektu berdinak azaltzen. Oso aldatu dira euskarari eta euskal kulturari buruzko aipamenak eta azalpenak 1925ean *Xabiartxo* argitaratu zenetik 2000. urtera arte.

2. 1970eko hezkuntza legera arteko testuliburuak diotena

XIX. mendearen amaieran, irakaskuntza zabalduz doan neurrian testuliburuaren erabilera ere garatu egiten

da. XX. mendearen erditik gora, testuliburuak ezinbesteko bihurtzen dira eskolan, euren erabilera maila guztietara zabalduz.

Epe luzea da 1876 eta 1974 urteen artean mugatu dugun hau, baina testuliburugintzan urria. Urria, gaur ezagutzen dugun testuliburuari begiratuta, literaturan aldiz, oso sasoi aberatsa da. Aldaketa handiko sasoiak ere bada. Eusko Ikaskuntzak bultzatutako protesta eta eskakizunak ere hortxe kokatzen dira. Auzo eskola eta Ikastolen sorrera ere -Landeta, Elizalde eta beste batzuen lanak bitarteko-, sasoi honetakoak dira. Gainera, 1936an Eusko Jaurilaritza sortzen da. Zoritxarrez, gerrate ostean isilpean egongo da. Bestalde, ezkerreko nazionalismoak ideologia berria sortuko du. Euskara ere batu egingo da, alfabetatzea eta euskalduntzearen mesedetan. Euskal irakaskuntza ere gorantz hasten da sasoi honen azkenaldian, talde pedagogiko berriak sortuz. Gorabehera handiko sasoi honetatik euskarazko 10 liburu aukeratu ditugu geure laginean, beste 4 frantsesez eta gazteleraz. Guztira 2692 orri osotzen dituzte, gehienetan ikonoa dutenak.

Jakina da, sasoi honetako liburuak eta gaurkoak ez direla berdinak, antzekoak ere ez, egia esanda. Jeneralistak ziren ordukoak, gai guztiak liburu berean jorratzen zituztenak. Katezismoak, gramatikak edo ipuinak dira eskolan erabiltzen diren lehenengo liburuak. Dakigunetik, XX. mendearen bigarren hamarkadan argitaratzen dira euskaraz ikasteko lehenengo silabarioak. *Umearen laguna, Txomin ikasle, edo Xabiartxo* dira orduan argitaratu eta erabili zirenak. Mendearen erdirantz entziklopedien erabilera hedatuko da hemen ere, nonbait, gazteleraz edo frantsesez argitaratutakoak.

Euskaraz dauden liburuetan orduko bizimoduaren berri ematen da: edo baserriari buruzko informazioa, edo Bizkaiko jendeari buruzkoa... Horrela jokatzen dute *Sabin Euskaldunak* eta *Lutelestiak*. Lau dira lehenengo aroan hizkuntzari -euskarari- buruzko azalpenak ematen dituztenak, *Xabiartxo*, *Sabin euskalduna*, *Lutelestia* eta *Enciclopedia Alvarez*.

Xabiartxo -gerrareko eskoletan lehenago, eta etxe eskoletan gero- oso erabilia izan zen. Hasiera-hasierako Ikastoletan ere, besterik ezean, oinarritzkoa izan zen irakurketarako. Sasoi horietan lantzen zen edukia islatzen da *Xabiartxo* liburuan.

Beste gauza guztien moduan hizkuntza ere Jaungoikoak emana dela dio 98. orrian, *Izkuntzak* atalaren barruan: *Jainkoak gizonari emandako gauzik ederretako bat izkuntza da. Izkuntzaren bidez adierazten ditu gizonak bere gogoak, bere atsegiñak, bere atsekabeak.* Eta aberriaren ezaugarria ere bada hizkuntza: *Era askotako izkuntzak dira; abenda geyenak ba-dute berena.*

Hizkuntzaren dialektoen berri ematen da liburuan, baita hizkuntzarik erabilieneen izenak ere: *Izkuntza oek ere ez dira alde guzietan berdin izaten. Izkuntza bateko berdiñak ez diran erai izkelgiak deitzen zaye. Ludian*

zabalduenak diran izkuntzak, ingelera, pantzera, doitzera eta españera izango dira.

Hizkuntzarik zabalduenak Estatu handietakoak direla dio, indar kontuagatik, akaso. Euskararen ezaugarriak zahartasunean eta edertasunean jartzen ditu, natura, herria edo gizakiarengan jarri dituen era berean: *Gure izkuntza, euskera da. Ludian dan izkuntz zarretako bat da; eta ikasi duten jakintsu guziak, bere edertasunaz arrituak gelditu dira.*

Euskara jakintsuen ikergai ere bada, ikasi egiten dutela dirudi eta harritu hizkuntza honek dituen ezaugarriekin.

Lutelestia-n ez da igartzen aldaketa handirik. *Xabiartxo* liburuan gertatzen den eran erlijioa, lege zaharra edo ohitura garbiak goستن ditu. Honela dio 38. orrian, XVI. ikasgaian, Euskal Herria gaia lantzen denean: *Gure sorteria Euskaleria da. Europa'ko eri zaretako eta aureratuenetako bat da. Euzkaleriko semeei euskaldunak deritzaie, lanean iraunkorak, eta oitura garbikoak. Euskaldun'en izkuntza euskera da.*

Azpimarratzekoa da Euskal Herria Europarekin alderatzen duela, ikasleak Europara begira jartzen dituela, bestelako erreferentziarik barik. Gainera, Euskal Herria herri aurreratua da, Europa mailako beste edozein herriren moduan. Ikuspegi hau berria da sasoi honetan, eta badirudi pedagogian aritzen zirenek Europa eta hango pedagogiak izan zituztela erreferentzia.

Sabin euskalduna-k sasoi ezaugarriekin jarraitzen duen arren, euskarari buruzko azalpen zabalagoak eskaintzen ditu, herrialdeak lantzen dira-eta. Honela, 32. orrian adibidez, zera esaten da: *Ja eri guzietan euskera galdu da. Antziñan, araba-luralde guzian euskeraz itzegiten zan, eta baita ere Burgos eta Erioja Goitian. (...) Arabarak: Zabaldu euskera, orain gutxi dala galdu duten erietan.*

Antzekoak dira gainerako herrialdeen inguruko komentarioak. Hona aipu-zerrenda bat adibide gisa:

-Maite ezazute Gipuzkoa Euskadi'ko zatirik euskaldunena dalako.(26. orrian)

-Benapara'n eta Menditsuán bakarik euskeraz itzegiten da.(28. or)

-Zuberotar geienak euskeraz itzegiten dute.(30. or)

-Baiona ta Miaritz ezbeste, Lapurdi'ko eri guzietan euskeraz itzegiten da. Aspalditik, Baionan eusko-idazti asko argitaratzen dira.(34. or)

-Bizkai erdian euskeraz itzegiten da. Bizkai tarak oso abertzale eta langileak dira. (36. or)

Hizkuntzari buruzko atal bat lantzen da 108. orrian. Bertan hizkuntzaren funtzioak ez ezik, euskara aberriarekin lotu ere egiten da, Jaungoikoa aipatzean erlijioari eta oitizari ematen zaie garrantzia.

Zazpi euskalkiak ere izendatzen dira, euren arteko desberdintasunak aditzean daudela esanez. Euskararen edertasuna, honetan ere azaltzen da, aurrekoetan bezala,

eta euskara maitatzeko gomendioa egiten da. Honela dio: *Izkuntzaren bidez gure oldozmen, gure gogai, gure neke ta gure pozak beste gizaki guziaz agertzen dizkiegu. Ludian izkuntza asko daude. Ludiko zar eta onenetakoa euskera da. Euskotarren izkuntza euskera da. Euskotarrak beti euskeraz itzegiten dute, eta euskeraz Jainkoári otoitz egiten diote. Euskera'k zazpi elki garai ditu: Bizkaitarra, Gipuzkoarra, Goianpartarra, Benapartarra, Lapurditarra, Zuberoarra ta Erronkariarra. Berezipen aundienak eusko-aditzan aurkitzen dira. Maite dezagun euskera: gure aiten izkuntz eder eta jakintsua.*

Abertzaletasuna, euskaraz mintzatzea, euskal ipuin edo bestelako irakurketak egitea, baloratu egiten da liburu honetan. Seigarren orrian, honela dio: *Sabin oso abertzalea da, eta orengatik bere gurasoak gehiago maite dute. Bere lagunekin beti euskera garbiaz itzegiten du. Bere lanetik kanpora gelditzen zayon denboran, eusko-ipui eta olerkiak irakurtzen ditu.*

Orduan, gaurko moduan, euskarak bazituen loturak abertzaletasunarekin. Eta gaurko moduan, orduan ere euskara galtzeko arriskuan zegoela somatzen zen; *euskera ta oitura zarrak igesi doaz* irakurtzen baita 108. orrian.

Enciclopedia Alvarez Hego Euskal Herrian oso erabilia izan zen frankismo garaian. Gaztelerari ematen dion aparteko garrantzia handia izanik, euskara ere aipatzen duela esan behar da, 104. orrian, hain zuzen, hizkuntza eta dialektoa bereiztuz:

Idioma es la manera de hablar de cada pueblo o nación. En España hablamos el idioma español o castellano, en Francia el francés; en Inglaterra el inglés, etc.

Se llama dialecto la manera particular de hablar y escribir el idioma oficial de un país en determinadas regiones del mismo. Los dialectos carecen de tradición literaria, es decir, no poseen obras escritas en ellos. En España podemos considerar como tales el bable asturiano, el extremeño y el andaluz. El catalán, el gallego y el vasco tienen, categoría de idiomas y el valenciano es una variedad dialectal del catalán.

Hizkuntza kategoria onartzen zaien arren, dialektoari dagokion atalean azaltzen dira katalana, gailegoa eta euskara. Badirudi, hizkuntza estatua estatuetako hizkuntzek baino ez dutela, estaturik gabeko herrietakoak dialekto-hizkuntza edo antzeko zeozer diren bitartean.

Saso honetan arakatu ditugun liburuen artean, euskaraz daudenetan baino ez ditugu aurkitu euskara eta euskal kulturari buruzko azalpenak. Gainera, euskaraz dauden liburu horietan euskara da garrantzizko hizkuntza eta gazteleraz daudenetan gaztelania.

3. 1970etik 1990eko legera bitarteko testuliburuak azterketa

Aldaketa sasoia da 1975 eta 1990 urte bitartekoa Hegoaldean. Gobernu autonomoen sorrerak eta Ikastolek bizi duten zabalkundeak, testuliburugintzaren gorakada bultzatuko dute. Hegoaldean estatuak egoera politiko berritua bizi du eta horrek eragina izango du hezkuntza lege berriak bultzatzean. Euskal irakaskuntzak gora egiten du eta honen beharrianak betetzeko argitaletxe komertzialak sortzen dira. Kanpokoak ere liburuak euskaratu eta euskal irakaskuntzan sartzen dira. Edozelan ere, Hegoaldeak markatzen du euskal produkzioaren erritmoa. Saioka, Erein eta Elkar argitaletxeak agertzen dira, lehenengoz, testuliburugintzaren ekoizpenean.

Lagina 26 liburuk osotzen dute eta euretarioko zortzik ematen dute euskarari buruzko aipamen idatzia. Euskaraz idatzitakoak aukeratu arren, gazteleraz duten itzulpena ere aztertu dugu, eta Iparaldean gehien erabiltzen diren batzuk ere bai. Bigarren sasoi honetako liburuek 4.644 orri dituzte orotara, baina 46 orritan baino ez dago hizkuntzari buruzko azalpenik. %1era ere ozta-ozta heltzen da. Batez beste, aipamen bi dira liburuko.

Bestalde, euskarari buruzko idatzizko azalpenak ematen dituzten liburuak, ondoko hauek dira:

Testuliburuak	Argitaletxea	Urtea	Hizkuntza
Aurkitzen - Gizartea	Ibaizabal-Erein	1984	euskaraz gazteleraz
Kuxkux - Giza Zientziak	Elkar	1988	euskaraz
Ardatz	Bruño	1990	euskaraz
Saioka - Gizarte arloa	Cinsa	1977	euskaraz
Saioka - Natur arloa	Cinsa	1977	euskaraz
Sirimiri - Esperientzia	Elkar	1990	euskaraz
Gizartea	Edebé	1991	euskaraz

1. taula: euskara azaltzen duten argitaletxeak

Aurkitzen, Kuxkux eta Ardatz dira euskarari buruzko azalpenik sakonenak ematen dituztenak. Espaziorik gehien ere eurek ematen diote gai honi.

Euskarak ematen digu izena guri: Euskaldun. Euskarak ematen dio izena gure herriari: Euskal Herria. Honela hasten da gaia Bruño argitaletxearen Ardatz liburuan eta Elkar-en Kuxkuxenean. Aurkitzen deritzan liburuan ere antzeko hasiera ematen zaio gaiari, 143. orrian honela dio: *Euskal Herria = Euskararen herria; Euskaldunak = euskara dabenak edo hitzegiten dabenak.*

Euskararen jatorria da azaltzen den hurrengo puntua. Aurkitzen-en 143. orrian hauxe esanez hasten da: *teoria askok nahi izan dabe euskararen jatorria esplikatuz, baina gaur egun arte horietariko teoria bat berak ere ez dau auzia garbitu. Gauza segurua zera da, euskara Penintsulako eta Europako hizkuntzarik zaharrena dala.*

Kuxkux-en 147. orrian, noiz sortu ote zen euskara?, noiztik hitzegiten ote da euskara Euskal Herrian?, beste hizkuntza batetatik ote dator? eta honelako galderak planteatzen dira jatorriaren azalpena eman aurretik. Gure inguruan hitz egiten diren Europako hizkuntzek, hizkuntza indoeuropearretan dute sustraia, baina euskara oso desberdina da. Hizkuntzalari batzuen esanetan Errusiako Kaukaso aldeko hizkuntza batzuekin izan dezake zerikusia. Baina egia esan, oraindik inork ez daki ziur euskara nondik datorren.

Eskema baten bidez laguntzen da azalpen teorikoa, eta eskema agertzen diren hizkuntzak non hitzegiten diren ikertu eta sakontzeko ariketa ere proposatzen zaie ikasleei.

Euskararen euskalkiak eta euskara batua bera ere azaltzen dira hiru liburutan. *Aurkitzen-en* 145. orrian hauxe dator: *Zer euskara berba egiten da Euskal Herrian? Ez da euskara bardina egiten Markinan, Maulen, Tolosan... Euskara egiteko era desbardinei deritxo eta era bakoitzari euskalki deritxo.* Zortzi euskalki daudela dio eta bakoitzaren izena eta kokapena mapa baten bidez ematen dira: *Konturatuko zinan zelan probintzien eta euskalkien mugak ez datozen bat, Zuberotan ezezik.* Euskalki bakoitzeko hiztunek zenbat diren, hiztun gehien edo gutxien dituen zein den, eta tankera horretako datuak ematen dira taula batean.

L.L. Bonaparteren mapa erabiltzen dute *Kuxkux-en* euskalkien berri emateko. Ikerketa lana proposatzen zaio ikasleari, gai bezala jarraikoak ipiniz: euskararen euskalkiak zeintzuk diren, bakoitzaren lurraldea zein den, edo euskalkien gaineko lana.

Azken urte hauetan jendea asko saiatu da euskalki horiek dituzten ezberdintasunen gainetik euskaldun guztiok uler dezakegun hizkuntza bateratu bat erabiltzen eta batez ere idazten, denontzako ulergarri izan daitekeen euskara batua idazten. (Kuxkux 149.or.)

Euskara bat da baina zenbait gauza esateko hitz ezberdinak erabiltzen dira toki batean edo bestean:

Bizkaian: amama ikusi dot

Gipuzkoan: amona ikusi det

Adibide gehiago ere ematen dira *Aurkitzen* liburuan, 60-61. orrietan, baita euskalki guztien izenak ere. Euskal Herriko mapa margotzeko ariketa dator gero, ikasleak berak euskalki bakoitzaren lurraldea kolorez markatzeko.

Hizkuntzaren legeak Euskaltzaindiak finkatzen ditu, dio. Euskara batuaren beharrez azaltzen da gero, denok lege berberak erabiltzea idazteko orduan. Berba egiterakoan bakoitzaren euskalkiaren garrantzia azpimarratzen da *Ardatz-en* 62. orrian: *Baina hitzegiterakoan euskalkiak erabiltzea ona da. Euskalkiak ez ditugu galdu behar euskararen aberastasuna adierazten bait dute.* Elebitasuna eta hizkuntzen arteko trukeak azalduz amaitzen da gaia liburu honetan.

Euskararen atzerakadaren bilakaera azaltzen da *Aurkitzen* 147tik 149rako orrietan. I. mendean hasi eta

gaur eguneko egoerara heldu bitarteko prozesua azaltzen da. Euskararen atzerakadarako arrazoak batzuk ere ematen dira, euren artean irakaskuntzan ari ziren maisu-maistra erdaldunak aipatuz, eta Aldundiak horren kontrako protesta egin zuela: *Aldundien ustez Euskal Herriko maisuak euskara jakin behar eben eta hizkuntza eta ohitura bereziak ezagutzen ez zituen jende arrotzaren etorrerea galazo egin behar zan.* Aldundien eskabidea ez zen onartu.

Geroago, 150. orrian hain zuzen, *Etxepareren "Linguae Vasconum Primitiae"* aipatzen da, *Axularren "Gero"* eta *Aita Larramendiren gramatika* liburuarekin batera. Gaur eguneko egoeraren berri ere ematen da, batez ere, Hegoaldeko egoerarena. Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren sorrera aipatzen dira jarraian, Euskaltzaindiaren eginkizunak azalduz.

Aurkitzen zein *Kuxkux-en* plazaratzen den azkenengo gaia zera da *Gal ote daiteke betirako euskara?*

Euskarak aurrera egin behar du, dio *Aurkitzen-ek* 152. orrian. Literatura, ikerketa, zein edozein arlo jorratu behar da euskaraz, euskararen aldeko etengabeko lana beharrezkoa da.

Saiokak -1977an Bilbon argitaratutako liburu bietan, natura zein gizarte arloan, azaltzen da hizkuntza. Natur arloko liburuan, 288. orrian, informabideak eta euskara datoz: *Informabideetan hizkuntza bat erabiltzen da. Euskaldunontzat arazo honek garrantzi handia du, zeren eta gure hizkuntza, hots, euskara, oso bazterturik baitago informabideetan. Aldizkariak, irriatiak, telebista, zinea,...erdaraz egiten dira gehienbat. Eta sarri, normalizat hartzen dugu hori eta ez gara horretaz gehiegi arduratzen. Zuzen ote da euskal informabideak ez edukitzea? Euskaraz informatuak izateko eskubiderik ez al dugu? Dena den, oztopo asko gaindituz, ba daude euskaraz informatzen duten zenbait aldizkari eta irriati, eta telebista saio bat.*

Eta geroago gurasoen konpromisoari buruz hitz egiten da, gurasoak euskararekiko izan behar duten erantzukizunari buruz: *Alfabetapena: zeuen gurasoak ikastolara bidaltzen zaituztete, euskaraz ikas dezazuen. Baina berek ikasten al dute? Euskara al dakite? Ezezkoan, ikasten ari dira? Baiezkoan, alfabetaturik al daude? Euskal aldizkari eta liburuak irakurtzen al dituzte? Gurasoak ere ikastolara. Zer bada?*

Saioka sozial arloan, *Aragoa* 1.gaia denaren barruan, Bi hizkuntzen gonbaraketa egiten da 43. orrian. *...birpizkunde bidean ikastoletan 35000 haur dabilzan bezala, Aragoan ez dago oraingoz horrelakorik. Gau eskoletan zenbat jende ari ote da euskara ikasten? Erreterian bakarrik, 1200 lagunek eman dute izena gau eskolarako, eta gainera horietatik gehienak jatorriz kanpokoak dira. Zenbat jaialdi euskaraz, zenbat euskaldun kantari! Euskal Herrian hainbat kultur aste eta kultur urte ere bai, euskaraz denak! Zure herrian zenbat jende ari da gau eskoletan? Zenbat jaialdi edo kultur aste egin ohi dira urtean zehar?*

"Euskararen prozesua" agertzen duen mapa ere badator.

Katalan Herrialdeak lantzen dira 2. gaian. eta hor, 46. orriko *Projektua* atalean, zera irakurtzen da: *antz handiak aurkituko dituzue gure Euskal Herriarekin. Kataluniak ere nazio nortasun nabaria du; beraren hizkuntzak, kulturak eta historiak argi adierazten diguten bezala. Euskal Herrian bezala, kantari eta poetak izan dira egoera honen oihulariak, herriaren autonomi egarria, kultur birpiztea, kezka eta arazoan bozgorailuak.*

G. Knorr, L. Iriondo, Aresti-Oskorri kantuen letrak datoz proiekturako hari desberdinak emanez.

Hizkuntza 52-53 orrietan lantzen da. Hasieran "Aitorren hizkuntza zaharra" eta "Guztiok gara euskaldun" kantuen letrak agertzen dira. Hizkuntza eta euskararen gainean hau dio: *Haserako mapan ikusten den bezala, muga, administral banatze eta baztertze guztien gainetik, hizkuntza batek herrialde hauen batasuna iraun erazten du. Historiak eta hizkuntzak ba dute zer esan haundia herri baten nortasun eta kontzientzian. Erromatarrek lur hauetan, beren enperadorego osoan bezala, aurkitutako hizkuntzak eta kulturak baztertu zituzten latina ezarriz. Urteetan zehar eta hurrengo inbasioen eragipenaz, latina gaurko erromantzeko hizkuntzetan bilakatu da.*

Orriaren erdian Europako mapa eta erromantzeko hizkuntzen zerrenda datoz, ikasleak bakoitza bere lekuan koka dezan. Gero katalanaren hedaturari buruzko azalpenak ematen dira.

69. orriari Pirinioetako Iparraldean eta frantziar estatuaren barnean dauden lurraldeak lantzen dira, Rossellóren katalantasia eta Frantziaren arteko harremanak azalduz. *1969ean kultur eta politikazko taldeen artean birsorkuntze nazionalista hasten da, katalanezko unibertsitatea, "terres catalanes" kazeta.*

Ondoko egintza hau ere planteatzen zaio ikasleari: *Pantxo eta Peioren "azken dantza" entzun eta beraren agerketa presta dezagun Ipar Euskal Herriko datu hauekin (...), Rosellóko arazo bera baita. Galiziera, latinetiko hizkuntza berezi bat.* Hau da gaia 105. orriari datorrena; beti euskararen egoera erabiltzen da konparaketak egiteko: (...) *Galiziako haurrek ez dute beren hizkuntzazko eskolarik, han ez baita oraindik sortu gure ikastolen moduko ikastegirik, irakaskuntza galizieraz emateko. Hala ere, ba dago Galizian Galiziar Hizkuntzaren Akademia bat, hemengo Euskaltzaindiaren antzera, bertako mintzairaz arduratzen dena.*

Gaztelako Herriak dira oraingoan aztergai, Penintsulan barrena kokatuta daudenak. Gaztelako Herrien aurkezpena egiteko armarririk erabiltzea proposatzen da, eta horretarako, 172. orriari, Miarriz, Errioxa, Sestao, Euskaltzaindia eta euskal lurralde guztien armarririk irudiak datoz.

212. orriari okzitaniar hizkuntza azaltzen da, haren garapena mendeetan zehar, gaur eguneko egoera, hizkuntza batuaren bila izan diren gertaerak eta mugimenduak. Oraingoan ere 233. orriari, Okzitania eta Euskal Herria erkatu egiten dira, gertaera historiak azalduz, eta horretarako kantari edo teatro taldeak erabiltzen.

Bretainia, Flandes, Alsazia, Korsika dira 8. gaian mintzagai. 236. orriari, gaia, aldizkariaren inguruan osatzeko proiektua azaltzen da: *Anaitasuna, Zeruko Argia, Garaia, Berriak, Jakin* euskal aldizkariekin batera, *Canigó, Lutte Occitane, Su populu sardu* eta honelakoak agertzen dira: *Euskal Herria ez da bere buruaren jabe izatearren, burrukan ari den herrialde bakarra. (...) Euskara ez da hamaika ostiko hartu eta gero bizi den bakarra, asko baitira antzeko zapalketak jasan eta gero, bizi nahian dauden hizkuntzak.*

Eta aurrerago, 238. orriari beste hau: *Frantziar Estatuaren barruan berriro, beste lau herrialde, lau kultura zapaldu, lau hizkuntza ezberdin, guztiak atzeraka doazenak, eta gero eta hilago bizi direnak.* Azalpen gehiago ematen dira hemen eta hurrengo 3 orrietan lau hizkuntzen egoerari buruz eta herrialde horiei buruz.

Ikusi dugunaren arabera, esan dezakegu Saioka-k Katalunia edo Galizia edo Aragoa eta abar lantzen dituen heinean, euskal kulturari zein hizkuntzari buruzko gaiak ere lantzen dituela. Beti egiten zaio erreferentzia norberaren hizkuntzari, komunikabideei, dantzei; bestearena ulertzeko zubiak geuretik eraikiz.

Sirimiri esperientzi arloko liburuan Nafarroako euskalduneri buruzko informazioa aurki dezakegu. 121 orriari adibidez, Nafarroako merinaldeak eta euskara izendatzen den gaiaren barruan, honela dio: *Nafarroan euskaraz hitzegiten dakitenen kopurua oso aldakorra da merinalde batetik bestera. Beha itzazu datuok: - euskaraz oso gutxi edo ezer ez dakiten merinaldeak: Erribera, Lizarra, Olite eta Zangotzakoak. - euskaraz nahiko edo asko dakiten merinaldeak: Mendikoa.*

151. orriari, euskaldunetz eta euskalkiez ari dela, hau dio: *Zuk euskaraz badakizu ezta? Baina Euskal Herriko biztanle guztiek ba al dakite euskaraz? Eta euskaraz dakitenek euskara berdina erabiltzen al dute? Egitzazu Euskal Herriko bi mapa desberdin: batean, euskaraz dakiten biztanleak banatu eta kokatu eta bestean, euskaraz idazteko eta hitzegiteko dauden modu desberdinak lekutu. Alegia, mapa batean euskaldun kopuruak eta kokapena eta bestean euskalki desberdinen hedadura adieraziko dituzu.*

153. orriari espainol eta frantses hizkuntzak azaltzen dira: *español edo castellano* Espainiako hizkuntza den bezala, *le français* duzu Frantziari mintzatzen dena. Hizkuntza hauek Espainian eta Frantziari ez ezik munduko beste herri eta nazioetan ere erabiltzen direla azaltzen da; horretarako munduko mapa erabiltzen dute. Eta hauxe gaineratzen dute: *Frantzia eta Espainiako lurraldeetan zehar frantsesa eta espainola ez diren*

beste hizkuntza batzuk hitzegiten dira: katalanera, gailegoa, euskara, bearnesa, alemanera, bretoaia.

Sirimiri liburu honetan baino ez dugu aurkitu horrelakorik. Elkar argitaletxeak 1990ean plazaraturiko testuliburu honetan Euskal Herria, Espainia eta Frantzia artean zatituta kokatzen da eta estatu bi horiek ere lantzen ditu, dela horko populazioa, edo antolaketa administratiboa.

Edebé-ren *Gizartea* liburuak beste alde batetik, ondoko hau dakar 83. orrian:

Euskaldunak: *Aipatu dugu Euskal Herria Historiaurretik populatua zegoela. Euskaldunak Euskal Herri eta Nafarroan bizi ziren biztanleei ematen den izen orokorra da, nahiz eta beste tribu inportanteak ere egon, esate baterako autrigoiak eta kantabriarrak. Tribu hauek batez ere artzantzara lotuta zeuden. Herri hauen artean gehienek euskera hitz egiten zuten, Penintsula Iberikoaren hizkuntz zaharrena.*

Argitaletxe eta liburu bakoitzean azaltzen diren euskararen gaineko gaiak laburtuz: *Kuxkux*, *Ardatz*, *Saioka* eta *Aurkitzen* testuliburuetan euskara gure nortasun zeinua dela ikas daiteke. Euskararen jatorriari buruzko azalpenak ere ematen dira liburu hauetan, euskalkien eta euskara batuaren gaineko informazioz gain. Edebé-k ez du azalpen handirik ematen, euskararen jatorriari buruzko zerbait baino ez.

Bestalde, euskara kokatzerakoan ez datoz argitaletxe guztiak bat. Liburu hauetan guztietan ikas daitekeena da euskara Euskal Herriko hizkuntza dela, nahiz eta Edebé-k Espainiako hizkuntzen artean kokatzen duen.

Orain arte aro honetan aipatu dugun guztiagatik hizkuntzaren gaia lantzen duten liburuekin hiru multzo desberdin egin daitezke.

Lehen multzoan *Ardatz*, *Kuxkux* eta *Aurkitzen* dauzkagu, hauek izan baitira hizkuntza jorrazterakoan euskara eta honen inguruko azalpenak eman dizkigutenak eta eman ere nahiko zabal, orrialde batzuk hartu baitira horretarako.

Bigarren multzoan *Saioka* koka dezakegu, arlo sozialekoa eta natur arlokoa, bitzuak, zeren bietan lantzen baita hizkuntzaren gaia. Euskararen inguruko azalpenetan, artekoekin bat datorren arren, bide desberdina erabiltzen du gai hau lantzeko, ezen ez baitio aparteko lekuri ematen, ez eta gaia bera modu bereiztuan lantzen, aitzitik, estatu gabeko nazioak lantzen direnean sartzten ditu euskara eta euskal kulturaren inguruko azalpenak.

Elkar argitaletxearen *Sirimiri* esperientzi arloko liburua eta Edebé-ren *Gizartea* dira hirugarren multzo batean aipatu beharrekoak: bietan ematen zaio oso leku gutxi euskarari buruzko gaiari. Lehenengoan, populazioari buruzko gaiarekin batera hitz egiten da euskarari buruz. Bigarrenean, euskaldunak non bizi diren aipatuz penintsulako hizkuntzarik zaharrena dela esanez bukatzen da gaia.

Gainontzeko guztiek ez dakarte ezer. Gogoratu Santillana-k 4liburu gehiago dituela; Edelvives-ek beste 4liburu; Hachette-k 3liburu; eta Edebé-k 2liburu. Hauetariko batek ere ez dakar gai honetako ezer.

Elkar, Erein, Saioka eta Bruño argitaletxeen liburuetan euskara da Euskal Herriari izena ematen diona. Euskarak egiten gaitu euskaldun.

4. 1990eko hezkuntza legearen osteko testuliburuaren araketa

1990 eta 2000 bitarteko urteetan argitaratutako testuliburuak dira epe honetan arakatu ditugunak. Euskal liburugintzak zabalkunde handia ezagutzen du sasoi honetan, euskal irakaskuntzak gorakada handia izan ondoren. Hegoaldeko gertaera da hau, Iparraldean ia dena frantsesez egina baita. 30 liburu dira mendearen azken hamarkada horretan aukeratu ditugunak, euskaraz, frantsesez zein gazteleraz idatzitakoak. Guztira, 5.974 orri dira arakatuak.

Ondoko hauek dira euskarari buruzko azalpenen bat eskaintzen duten argitaletxeak: Elkar, Erein, Anaya, Edebé, Santillana, SM eta Ibaizabal-Edelvives; denak ere Hegoaldekoak hala EAekoak zein Nafarroakoak. Azalpenetan, Vicens-Vives argitaletxea da salbuespen bakarra. Argitaletxe honen 1997ko *El medio natural, social y cultural* liburuan ere ez dugu euskarari buruzko ezer aurkitu. *Ingurunea-Euskadi* edo *Conocimiento del medio-Pais Vasco* izendatzen duen arren, gero ez dago euskarari buruz ezer.

Argitaletxe hauek guztiak 17 liburutan aipatzen dute hizkuntza, -euskara kasu honetan-; hau da, 3. aroan arakatu ditugun 30 liburutatik 17k, -%56,66ak, hain zuzen- badakar euskarari buruzko azalpenen bat.

Elkar argitaletxeak Gipuzkoako irakasle elkartearekin batera osaturiko *Ingurunea* Beleko bildumakoa da, Erein argitaletxearen izen berekoarekin batera, hizkuntzari aparteko lekua ematen diona. Ikus dezagun baieztapen honen arrazoia liburu horiek hitzez hitz arakatuz. Elkar-en Beleko liburuan Euskal Herriko mapa batekin hasten da gaia, ondoren, 179. orrian, euskararen jatorriaz hitz egiteko: *Euskara, gaur egungo hizkuntzetan zaharrenetakoa da. Ez da euskararen iturria izan daitekeen hizkuntza zaharragorik ezagutzen.*

Euskara hizkuntza zaharra da bai, baina nondik dator? Elkar-en liburuan honela dio. *Hizkuntzalari batzuen iritziz Kaukaso aldeko hizkuntza batzuekin zerikusia izango luke; beste batzuek lurralde honetan betidanik euskaraz hitz egin dela, diote...Baina oraindik ez dakigu ziur euskararen jatorria zein den.*

Ez dakigu nondik datorren ez dauka antzekotasunik inguruko hizkuntzekin, ezin da beste hizkuntzen egiturarekin alderatu, bakarra da.

Gure inguruan hitz egiten diren Europako hizkuntzek, beren jatorria antzinako hizkuntza indoeuroparretan dute. Hau dela eta, hizkuntza

horiekiko ezberdintasun handiak ditu euskarak. Azalpenak jasotzen laguntzeko, hizkuntzen jatorriaren eskema dakar: Indoeuroparrena kasurako. Hortik datoz germaniarra eta latina. Indoeuroparra daukagu hizkuntzen jatorrian, gaur ezagutzen ditugunak ere hortik datoz, euskara izan ezik.

Euskara hizkuntza zaharra dela esaten du Ereinek ere. Erein-en *Inguruneak*, 130. orrian, honela dio: *Orain urte asko Euskal Herrian bizi ziren pertsonak hizkuntza batez mintzatzen ziren: euskaraz; seguruenik, Iberiar penintsulako eta Europako hizkuntzarik zaharrena izango da.*

Eta Elkarrek, 180. orrian, *Euskara oso hizkuntza zaharra da eta gu bizi garen lekuan kontserbatu egin da. Historian zehar Euskal Herriak hainbat eraso eta eragin jaso arren (erromatarrek, bisigodoak, musulmanak, frankoak...), beraren hizkuntza ez da galdu.*

Euskara zaharra da eta orain arteko eraso guztiei aurre egin eta ez da galdu. Guztiz garrantzizkoa da hori, Elkarren bertan esaten den moduan *Herri batek bere hizkuntza kontserbatzen duen bitartean bere identitatea mantentzen du eta.*

Euskal Herrian euskara berdin-berdina ez dugu erabiltzen. 180-181 orrietan ematen du Elkarrek honen berri: *Euskara gure hizkuntza izanik, konturatuko zinen Euskal Herriko toki guztietan ez dela berdin hitz egiten. Adibidez, ez da berdin hitz egiten Tolosa, Bermeo edo Goizuetan. Hizkuntza batek bere barnean dituen hitz egiteko era ezberdinei dialektoak deritzaie eta euskararenei berriz, euskalkiak. Baina hizkuntza bakarraren beharra ere azaltzen du liburu honek, batez ere, era idatzi bakarrarena. Euskalkiak dituzten ezberdintasunak direla eta, azken urte hauetan denok elkar ulertu ahal izateko, eta batez ere komunikabideetan eta idazterakoan, euskara batua erabiltzen saiatzen gara.*

Erein-en Ingurunea liburuan ere azaltzen da herrialde bakoitzean euskara zein neurritan erabiltzen den, populazio euskaldunari buruzko datuak emanez. Honela, 130. orrian, *1868.urtean eta 1975.ean Euskal Herriko alde bakoitzean euskaraz mintzatzen ziren pertsonen buruzko datuak: Araba, Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia eta Iparraldea.* Liburu berean, euskara komunikatzeko tresna dela esaten da, hain zuzen 127. orrian. Eta aurrerago, 131. orrian honela dio: *Euskarak galzorian jarraitzen du. Horregatik, pertsona eta instituzio asko ahalegin handia ari dira egiten hori gerta ez dadin: hitz egiten eta ikasten, telebista eta irratigintzan, egunkari eta aldizkarietan idazten, eskola, ikastola eta ikastetxeetan irakaskuntza euskaraz izan dadin ahalegintzen...* Eta gero galdera hau, *Zer gerta liteke euskara baturik ez balitz?* Erantzun gisa: Euskaltzaindiak euskara batua sortzeari ekin zioneko dator, erakunde horren anagrama ezarriz.

Erein eta Elkar argitaletxeen testuliburuetatik zein ondorio atera daitezke? Hirurok behintzat bai:

- Euskal Herria bere osotasunean onartzen dela, lurralde guztiak barne hartuz; euren arteko diferentzia bakarra euskalkiaz hitz egiterakoan agertzen da.
- Euskara dela Euskal Herriari bere nortasuna ematen diona eta, orobat, bera dela Euskal Herrian hitz egiteko erabili izan den eta erabiltzen dugun hizkuntza.
- Europako hizkuntzarik zaharrenetakoa dela, indoeuropearrak baino lehenagokoa.

Erein eta Elkar argitaletxeek duten irizpidea ez da agertzen beste liburu batzuetan. Curriculum ofizialak zabalik uzten du Euskal Herria, Euskadi zein Autonomi Erkidegoa erabiltzeko bidea, curriculum horietan euren izen guztiak erabiltzen dira, gainera, behin bata eta behin bestea. Gauzak horrela, argitaletxe bakoitzak bere irakurketa egiten du, eta izendapen desberdinak aurkituko ditugu: Euskara Euskadiko hizkuntza izan daiteke edo Espainiako estatuko autonomia bateko hizkuntzetariko bat.

Erkidegoaren kontzeptua erabiltzen dute Anaya-Haritz, Santillana-Zubia, Ibaizabal-Edelvives eta SM argitaletxeek. Liburu hauek irakurrita estatuaren barruko erkidegoan bizi garela ikasiko du ikasleak. Eta euskara Euskal Herriko hizkuntza izanik, Euskal Autonomi Erkidegokoa da. Bruño-k, berriz, Espainiako hizkuntzen artean kokatuko du euskara. Era horretan, nonbaiteko -Euskal Herriko, kasu honetan- erkidegoaren izaera eta nortasun erakusgarri izatetik, guztiz urrun gelditzen da planteamendu hau. Bruñorentzat Espainiako ondarearen aberastasunetariko bat baino ez da. Espainiako nortasunean funtsezkoa ez dena. Ondorioz, euskaldunak nahiz katalanak zein gailegoak oinarrian espainoleko hiztunak direnez, hauentzat ere euskara, gailegoa edo katalana aberastasunak dira, baina ez funtsezkoak, zeren identitatez izan, espainolak dira eta beste bat jakitea -euskara euskaldunok- ondo dago, baina ez da nahitaezkoa.

Anaya-Haritz-k, *Inguruaren Ezaguera D*, 1998an argitaratutako liburuan labur bada ere, 5. unitatearen barruan *Herria egiten guztion artean!* izenburua duenean, ondoko hau dio: *Euskaraz egiten dugu. Euskara da Euskal Herriko Hizkuntza. Europan bizirik dirauen hizkuntzarik zaharrenetarikoa da. Baina ez dakigu ziur nondik datorren. Euskara dialekto edo euskalkitan banaturik dago: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera... Gainera, guztion arteko elkar ulertzea errazteko, euskara batua daukagu... Zure herrian erabiltzen da euskalkirik? Zein? Nolako euskara erabiltzen da komunikabideetan? Euskara berdina erabiltzen duzu idazteko eta hitz egiteko orduan?*

Anaya-Haritzaren liburu honetan, *D* eredurakoan, euskara Euskal Herriko hizkuntza da; honez gain, euskararen jatorri ezezaguna, hizkuntza zaharra, euskalkiak eta euskara batua dira aipatzen dituzten

aspektuak. Baina argitaletxe honek ez du berdin jokatzeko bere testuliburu guztietan. Ikus dezagun:

Argitaletxe berak badauzka Inguruaren Ezaguera deituriko beste bertsio batzuk ere, Euskadi, *País Vasco* edo *Navarra* azpizburua daramatenak. 1998koak dira *País Vasco* eta Euskadirakoak eta 2000koa *Navarrarakoa*. *Ingurunearen Ezaguera*-Euskadi liburuan Anaya argitaletxeak zera dio: *euskara Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntza da*. 18. unitatean, *Aro Garaikidea- Euskal Autonomia Erkidegoa XX.mendean* izena duenean, 195.orrian, beste hau dator: *Euskal hizkuntza eta kultura ikasten eta hedatzen hasi dira. Mende honetan, pertsona ospetsu askok, literatura eta herri elkarteek, eta abar, ahalegina egin dute gure hizkuntza eta ohitura nahiz tradizioak euskaldun guztioi zabaltzeko*. Demagun *Conocimiento del Medio-País Vasco* liburua aurrekoaren modukoa dela, berdin berdina. Hara dioena:

La Edad Contemporánea. La Comunidad Autónoma del País Vasco en el siglo XX. izeneko 18. unitatean, 195. orrian, euskaraz emandako testuaren itzulpena dakar: *"El estudio y la divulgación de la lengua y de la cultura vascas comienza a recuperarse. Durante este siglo, numerosas personalidades públicas, asociaciones literarias y populares, etc, luchan por extender el conocimiento de nuestra lengua y nuestras tradiciones y costumbres a todos los vascos*.

Zer esan dezakegu? Anaya-Haritz argitaletxeari jarraituta, euskara Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza da, *País Vasco*-koa, Euskadikoa, eta Euskal Herrikoa. Liburu bakoitzean gauza bat. Baina, *País Vasco* eta Euskal Autonomia Erkidegoa gauza bera ote dira? Anaya argitaletxeak bederen horrela hartzen ditu, horrela itzultzen ditu termino biak.

Testuliburu hauen aurretik bazituen beste batzuk: 1994an argitaratu zituen Anayak *Inguruaren ezaguera*-Euskadi eta *Conocimiento del medio-País Vasco*, baina bi hauetan ez dugu aurkitu euskarari buruzko ezer, aipamen txikienik ere ez.

Ezin dugu Anayak Nafarroarako argitaratutako liburua alde batera utzi. Ez dakar euskararen aipamenik, eta aipamenik eza bera da aski adierazgarria. Begira diezaiozun hitzez hitz esaten duenari *Conocimiento Medio-Navarra La Edad Contemporánea*. 195.orrian (18. unitatean): *Navarra en el siglo XX: El estudio y la divulgación de la cultura Navarra comienzan a recuperarse. Durante este siglo, numerosas personalidades, instituciones públicas y privadas, asociaciones literarias y populares, etc, centran sus esfuerzos en extender el conocimiento de nuestras tradiciones y costumbres a todas las personas de la Comunidad Foral*.

País Vasco eta Euskadirako testuliburuekin alderatuz gero, 195. orrian dakarren testua berdina da, baina testu horietan hizkuntza *nuestra lengua* azaltzen da eta Nafarroan ez da horrelakorik agertzen, desagertu egiten da, ez dago *nuestras tradiciones y costumbres*

baino gehiagorik. Anaya argitaletxeak Nafarroarako testuliburuan ez du euskara aipatu ere egiten. Zentzu honetan, curriculum politika jakin baten mesedetan garatzen da.

Santillana - Zubiak 1994an argitaratu zituen epe honetako lehenengo liburuak. Hauetan ez da gauza handirik esaten, aipamen txiki bi baino ez dira. Honela dio *Ingurunearen Ezaguera* liburuak bere 6. orrian: *Euskal herrialde guztiek antzeko paisaia, ohitura eta hizkuntza bera erabiltzen dute, hau da, euskara, European mintzatzen den hizkuntzarik zaharrena*. Baina deigarriena ondoko hau da, gure ustez. Ariketa bat planteatzen zaio ikasleari, eta galdera batzuk erantzun behar ditu, besteak beste, 53. orrian datorren hau: *Euskal Herria. Zein da Euskal Herriko berezko hizkuntza? (aukeratu) esperantoa, euskara*.

Conocimiento del Medio izeneko aurrekoaren erdal bertsioa da, berdin-berdina, 6. orrian irakurtzen den bezala: *Son comunes a todos los territorios de Euskal Herria unos paisajes semejantes, un gran número de costumbres y tradiciones y la utilización, de una misma lengua, el euskara o vascuence, que es la lengua más antigua de las que se hablan en Europa*.

Ikasleari egiten zaion galdera ez da berdina, antzekoa baizik. Hala dator formulatuta 53. orrian: *Elige la respuesta correcta. El habla propia del País Vasco es: el chapurreo, el euskara. Zelako jarrera irakasten zaio ikasleari euskararekiko? Zergatik konparatzen da esperanto eta chapurreo delako horrekin? Hori irakur lezakeen ikasleari halako galdera burura dakioko: *elige la respuesta correcta. El habla de España es : el habla gitana o el español*.*

Argitaletxe honek ere, Anaya-k egin duen moduan, 1998koan liburu berriak atera zituen: *Ingurunearen ezaguera. Galderen liburua, Conocimiento del medio. El libro de las preguntas. País Vasco, Conocimiento del medio. EL libro de las preguntas. Navarra. Galderen liburua eta Libro de las preguntas País Vasco* antzekoak, ia berdinak dira.

Zubia-Santillanak euskara eta euskaldunak aipatzen ditu liburuotan. *Inguruaren Ezaguera. Galderen Liburuan*, 42. orrian haxe dio: *Euskaldunak, Estatuaren barruan, erkidego bakoitzeko jendeak izaera eta portaera berezia du. Euskaldunek oso erraz bereizten dira: euskaraz mintzatzen direlako, erdaraz mintzatzean doinu berezia dutelako, Euskal Herriko hitzak erabiltzen dituztelako eta zenbait aditz forma era desberdinean erabiltzen dituztelako, adibidez, baldintzazko formak*.

Honako ere beti da itaun bera "doinu berezia dute euskaldunek", baina zein da estandarra euskaldunen doinua berezia izan dadin? Ez ote da berezia Madrilekoena, Andaluziakoena, Aragoikoena?

Euskaldunek erakutsi ohi duten harreraren berri ematen da: *Euskaldunak ezagunak dira atzerritarrei harrera ona eta beroa egiteagatik. Esaten da inor ez dela arrotza Euskal Herrian. Gure Erkidegoak 500.000*

bisitari hartzen ditu urtero. Eta gaineratzen da euskaldunen diasporaren inguruko informazioa, *Euskaldunak Euskal Herritik kanpo. Euskal etxeak*: Ameriketako euskal etxeei buruzko informazio laburra ematen zaio ikasleari.

Euskal Herriak batasun etnikoa erakusten du, adibidez, 156. orrian, *Lurralde hauek guztiek ezaugarri komunak dituzte, adibidez, antzeko paisajeak dituzte, ohitura eta tradizio berdintsuak gordetzen dituzte eta hizkuntza berean mintzatzen dira, hau da, euskaraz*, esaten da. Eta jarraitzen du hurrengo orrian, 157. orrian: *Euskara: Euskal Herriaren nortasun zeinu garrantzitsua da. Mundu osoko hizkuntzarik zaharrenetakoa da. Euskara ondo gorde zen Euskal Herrian, erromatarren eragina ez baitzen handia izan alde batzuetan. Erdi Aroaren hasieran euskara oso hedatuta zegoen, eta Errioxako eta Burgosko lurretaraino heltzen zen. Euskara ahoz pasatu da belaunalditik belaunaldira, baina antzinatik egon dira euskaraz idazten duten idazleak. Bernard Etxeparek idatzi zuen euskarazko lehen liburua: *Linguae Vasconum Primitiae*.*

Zubia-Santillana argitaletxearen liburuetan zera ikas daiteke:

- Euskara Europako hizkuntzarik zaharrena dela.
- Euskal herrialde guztietan hizkuntza bera erabiltzen dutela.
- Euskara Euskal Herriaren nortasun zeinua dela.
- Euskara ahoz pasatu dela belaunaldiz belaunaldi.
- Bernat Etxeparek idatzi zuela euskarazko lehen liburua.

Argitaletxe honek Nafarroarako plazaratzen duen liburuan, euskararen inguruko gaia beste modu batean azaltzen da. Gazteleraz argitaratzen duten liburu honetan ondoko hau esaten da: 165. orrian, *Nuestro patrimonio: El Euskera* izenekoan *En la Comunidad Foral de Navarra se hablan dos lenguas: el castellano y el euskera. El euskera es una lengua muy antigua que ha sobrevivido sobre todo en las montañas del norte y el oeste y en algunas partes de la zona media de Navarra, en el País Vasco y en algunas zonas del sur de Francia. Las dos lenguas tienen un carácter oficial en Navarra y contribuyen al enriquecimiento lingüístico de nuestra Comunidad. Por qué decimos que Navarra es un territorio bilingüe? ¿En qué zonas de Navarra se habla el euskera? ¿En qué otras zonas fuera de Navarra se habla esta lengua? Es importante la existencia de dos lenguas en Navarra? ¿Por qué?*

Liburu honetan, beraz:

- Nafarroako hizkuntza euskara ere badela onartu eta irakasten da.
- Bi hizkuntza erabiltzen direla Nafarroan.

- *País Vasco* eta Frantziako leku batzuetan ere euskara erabiltzen dela.

Baina deigarria da 3. orrian, aurkibidean topatu duguna. 12. gaiaren barruan hau dio: *nuestro patrimonio, el euskara (tema transversal)*. Eta ez da Euskal Herririk aipatzen. Nafarroan eta EAEn jokabide desberdina agertzen du argitaletxe honek. Galdera da, ea zergatik. Zein diseinu curricularretara jo daiteke honetarako argumentu bila?

SM argitaletxeak Nafarroarako egiten duen liburuan, *Conocimiento del medio-Navarra* deitzen den horretan, *la lengua oficial de la comunidad es el castellano* irakasten da.

Honela dio 155 orrian: *Navarra es una Comunidad Foral situada en el norte de España. Cada palabra de la expresión Comunidad Foral posee un significado importante: la palabra Comunidad significa un conjunto de personas relacionadas entre sí, con muchas características en común: su historia, sus tradiciones, su cultura, sus leyes...*

El Amejoramiento del Fuero es la ley más importante de nuestra Comunidad. En este documento, además de los derechos y deberes de los ciudadanos navarros, se recogen aspectos como:

- capital, territorio, instituciones
- la lengua oficial de la Comunidad, que es el castellano.

Testu honetan argi geratzen da:

- Nafarroa Espainiako Erkidegoa dela,
- *Amejoramiento del Fuero* deitzen den legea ere baduela,
- Ohitura, kultura eta legeak amankomunak direla
- Nafarroako hizkuntza ofiziala gaztelania dela.

Ondorioz, euskararekin ezkutuko curriculumak jartzen da praktikan, sorginen gainean aipatu ohi dena gauzatuz, "diren ez da sinestu behar, ez direnik ez da esan behar".

SM argitaletxeak *Inguruaren ezaguera* eta *Conocimiento del medio* liburuak 1994an plazaratu zituen. Liburu hauek ez dira berdin-berdinak, zeren euskaraz eta gazteleraz esaten direnak ez baitira gauza bera, eta ez baita kontzeptualizazio bera egiten euskaraz ikasten duen ikasleriarentzat eta gazteleraz ikasten duen ikasleriarentzat. Euskaraz estatuko hizkuntzak aipatzen diren bitartean, gazteleraz ez da horrelakorik agertzen. Ikus dezagun:

SM-en *Inguruaren Ezaguera*, 179. orrian hauxe dator: *komunitate guztiek dituzte elkarrengandik bereizten dituzten ezaugarri propioak: lurraldea,*

ohiturak, biziera eta tradizio bereziak eta, zenbait kasutan, hizkuntza ezberdina.

Aurrerago, 189. orrian, beste hau: *Hizkuntza ezberdinez agurka. Gaztelaniaz gain, badira Estatuan beste hizkuntza ofizial batzuk ere: katalana Katalunian eta Balearreetan, valentziera Valentziako Komunitatean, galegoa Galizian, eta euskara, Euskal Herri osoko euskaldunen hizkuntza.*

Euskal Herria osoko euskaldunen hizkuntza dela euskara baieztatzen denean, zer esaten da? Zer esan nahi du honek? Zer da Euskal Herria? Nondik norakoa da? Nafarroa ere Euskal Herria ote da, ba? Ez da ezer argitzen. Ez dago ezelako erreferentziarik. Erdal bertsioa begiratuta ere ez zaigu garbi geratzen zertaz hitz egiten ari diren. Liburu horretan oraindik azalpen gutxiago ematen dira-eta.

Bestalde, lehenago aipatu dugun moduan, gaztelera ez dira azalpen berberak ematen: *Conocimiento del Medio* liburuan, 179. orrian: *Toda comunidad tiene unas características propias que la distinguen de las restantes: su territorio, sus costumbres, formas de vida y tradiciones peculiares y, en ciertos casos, un idioma distinto.* Eta 189. orrian honako hau: *decir hola en otro idioma*, kaixo esateko modu desberdinen taula dator.

Ibaizabal - Edelvives argitaletxearena da *Txepetx* Inguruaren Ezaguera arloko liburua. Berdin-berdinak dira euskaraz zein gaztelera argitaratukoak, biak 1994koak. 155.orrian, Autonomia Erkidegoaren eginkizunen artean *kultura eta heziketa: kultura, ikerlanak eta, kasuan kasu, Autonomia Elkarte* *hizkuntzaren irakaskuntza bultzatzea;* (azpimarratua gurea) *museoak, liburutegiak eta musika-kontserbatorioak; ingurugiroa eta monumentuen ondarea babestea; kirolaren sustapena...*

Hizkuntzaren irakaskuntza bultzatzea da Autonomia Erkidegoaren eginkizunetariko bat. Liburu hauetan ez da esaten zein hizkuntza den hori, euskarari buruzko aipamen idatzirik ez baitugu aurkitu 189. orria arte. Bertan, Erdi Aroaren gaia irakasten den orrietan zera dator: Euskal Herriko mapa: euskararen mugak X. mendean hasi eta gaur eguneko muga arte. Nolakoa zen kultura? galderari erantzutean, euskarari buruzko informazioa ere ematen du Ibaizabal-Edelvives-en liburuak, *Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea* aztertzen direnean. 193. orrian, adibidez. *Halere, euskararen egoera tamalgarria izango da garai hauetan, batez ere Bizkaia aldean jasango duen atzerakadari begiratuz gero irakurtzen da.*

Deigarria egiten zaigu liburu hauetan erabiltzen den kontzeptu desberdinen arteko nahasketa. Autonomia Erkidegoa eta Euskal Herria biak erabiltzen dira, desberdin du barik erabili ere, azkenean bata bestearen sinonimotzat hartu daitezkeelarik. Salatu beharreko kontua iruditzen zaigu, ikaslearen ikaste prozesuan eragina dutelako eskolan eta liburuetan aurkitzen dituen oinarritzko kontzeptuek.

Bruño argitaletxearen oraingo liburua *Haritza* da. Hizkuntza gaia 14. unitatean lantzen da, *Kultur aniztasuna. Euskal Autonomi Elkarte* *Gobernua* izenburuarekin. 170.orrian, honela dio: *Euskaldunok elkarrekin komunikatzeko euskaraz hitz egiten dugu. Hizkuntza komunikazio bide bat da, eta herrien nortasunaren ardatz garrantzitsuenen artean dago. Euskara Europako hizkuntzarik zaharrenetakoa. Duela milaka urte jaio zen, baina ez dago garbi non eta noiz. Euskal Herrian, euskaraz ezezik, gaztelera ere hitz egiten da. Eta jarraian beste hau ere esaten da: Konstituzioaren 3.artikuluak honela dio:Espainiako hizkuntza mota desberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da.*

Bruño-k ere kontzeptu nahasketan jarraitzen du, batetik, euskara Espainiako hizkuntza kontsideratuz eta, bestetik, Euskal Herriko hizkuntza dela baieztatuz. Gainera, orri berean Euskal Herri osoko mapa ere badator, euskararen banaketa geografikoa azaltzeko. Mapa honetan, area euskalduna, ukipen-area eta area gaztelanizatua adierazten dira kolore desberdinak erabiliz. Iparralde ere barne geratzen da azalpen honetan. Nola uler daiteke nahaste-borraste hau? Argitaletxeak oharkabean antolatuta badu, maila ezin apalagoa erakusten du testugintzan, eta hala ez bada, konturaturik egin badu, ez du irakastea bilatu, desinformatzea baino, eta hori ez da irakaskuntzan bidezko.

171.orrian, bestalde, Euskararen dialektoak lantzen dira: *Bizirik dagoen edozein hizkuntzatan hizkera desberdinak sortzen dituzten aldaerak izaten dira. Hizkera desberdin hauek dialektoak dira. Euskararen dialektoak euskalkiak dira: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, nafarrera eta zuberokera. Gai honetan ere Euskal Herriko mapa erabiltzen da euskalkien banaketa geografikoa azaltzeko, eta baita euskararen muga XIX. mendean eta 1935ean adierazteko.*

Euskara batuaren beharrezko azaltzen da, bestalde, literatura eta hizkuntza idatzia izango dena. Orain urte batzuk literatur hizkuntza amankomuna edo euskara batua sortzeko beharra sentitu zen, euskaldun guztiontzat izango zena eta, batez ere, literaturan eta hizkuntza idatzian erabiliko zena.

Bost ariketa proposatzen zaizkio ikasleari liburu honetan. Guztietan euskara eta gaztelera dira landuko diren gaiak, beti agertzen dira batera. Ikus bestela 170 eta 171 orrietako adibidea:

Beharrezkoa iruditzen al zaizu Espainiako eta Euskal Herriko hizkuntza guztiak zaintzea eta babestea? Zergatik?

Bruño argitaletxeak gaztelera plazaratutako *Paisajes* liburuan ere hizkuntza (la lengua) 14. unitatean lantzen da: *La lengua es un signo de identidad y forma parte de la cultura de las personas. Todas las lenguas y todos los idiomas son un vehículo de la comunicación. España es un país plurilingüe. Además del castellano,*

que es la lengua oficial de España, hay otras lenguas que enriquecen el patrimonio cultural español: el vascuence o euskera, el catalán y el gallego.

Hizkuntza ofiziala gaztelera da, argi eta garbi. Besteek -euskara euren artean-, ondare kulturala aberasteko balio dute, besterik ez. Hizkuntza hauen balio ofiziala ez da aipatzen. Zergatik? Badirudi liburuak, gaztelera argitaratutakoak, estatu guztiko ikasleentzat balio duela, katalan eta gailegoak barne. Horrela azal daiteke hurrengo lerroetan datorrena ere; hau da, Espainiako mapa, zeinetan *las lenguas y los dialectos de España* adierazten den, koloreen bidez. Aipagarria da mugaz bestalde geratzen den Iparralde ere koloreztatuta datorrela *euskera* hizkuntzari dagokion kolorean.

Ariketak -euskarak dagoen liburuan baino gutxiago izan arren- aipagarriak dira. Espainiako dialekto eta hizkuntzez dira galderak, *lenguas españolas* eta *lenguas extranjerías* izanik hizkuntza desberdinak.

Espainiako Konstituzioa da hurrengo aipatzen dena, euskara, gailegoa, katalana hizkuntzen ofizialtasuna onartzen duelako, hain zuzen: *reconoce la oficialidad del vascuence, el catalán y el gallego en sus respectivas comunidades autónomas y otorga al castellano el papel de lengua oficial del Estado, que todos los españoles deben conocer.*

Hizkuntza desberdinetan argitaratutako liburuen irudia eta honi dagokion ariketa datoz 171 orrian: *Observa las portadas de los libros. Es un mismo libro pero esta escrito en diferentes lenguas. ¿En qué idioma esta escrito cada uno de ellos? ¿Como lo sabes?*

Edebé argitaletxeak ez dakar azalpenik hizkuntza edo euskarari buruz. Aurkitu dugun aipamen bakarra 215. orrian datorrena da. Komikia erabiltzen da, hizkuntza desberdinetan gauza bera esanez: *buenos días, me llamo Juan. Bos días, chámome Xan. Bon dia, em dic Joan. Egunon, Jon naiz. Inguruaren ezaguera, Conocimiento del medio eta Conocimiento del medio-Navarra*, lehenengo biak EAerako eta hirugarrena Nafarroarako argitaratutakoan, hiruretan dator komiki bera inongo azalpenik barik.

Elkar eta Erein dira informazio gehien ematen dutenak euskarari buruzko azalpenetan. Horrez gain, baieza dezakegu, Euskal Herrian kokatzen dutela euskara eta hau jorrazteko erabiltzen diren eduki guztiak.

Anaya, Santillana, SM eta Ibaizabal-Edelvives argitaletxeek Euskal Herria zein EAE darabilte euskara lantzeko orduan, askotan kontzeptu biak nahastuz, ikasleari bide garbirik eman gabe.

Hona hemen laburtuz aro honetako testu idatzian euskarari buruz esaten direnak:

- Bruño argitaletxeak Espainiako hizkuntzen artean kokatzen du euskara. Baina, *Haritzan*, euskaraz argitaratzen den liburuan, euskara eta gaztelania

dira Euskal Herriko hizkuntzak. Eta maila berdinerako gaztelera argitaratzen den *Paisajes* liburuan, ordea, Espainiako ondarea aberasten dutenen artean kokatzen da euskara.

- Anaya-Haritz, Zubia-Santillana, Ibaizabal-Edelvives eta SM argitaletxeek Autonomia Erkidegoa zein Euskal Herria kontzeptuak erabiltzen dituzte, biak nahastuz. Gainera, *Euskadi* eta *País Vasco* ere agertzen dira.
- Anayak Autonomia Erkidegorako eta Nafarroarako liburu desberdinak ditu; EAerako euskaraz eta gaztelera ateratzen dituenetan *gure hizkuntza, ohiturak eta tradizioak* aipatzen dituen arren, Nafarroakoan hizkuntza ez da agertzen.
- SM argitaletxearen liburuan Nafarroako hizkuntza ofiziala gaztelera da. Euskarari buruz ez da ezer esaten, nahiz eta EAerako liburuan, besteak beste, euskara Euskal Herri osoko hizkuntza dela baieztatzen.
- Santillana liburuak dioena: paisaia, ohitura eta hizkuntza amankomuna dutela euskal herrialde guztiek. Euskara Europako hizkuntzarik zaharrenetakoa izanda, gero eta hedadura txikiagoa du. Erkidegoa eta Euskal Herria nahastu egiten ditu.
- Elkar eta Erein argitaletxeen liburuetan euskara da Euskal Herriko hizkuntza. Argitaletxe hauek dira hizkuntzari buruzko informazioa modu sakonean lantzen dutenak. Euskara euskaldunon identitate ezaugarria da. Historian zehar gora-behera asko izan arren, hizkuntza zaharra da, ez da galdu. Euskararen jatorria, euskalkiak eta euskara batua, Euskaltzaindiaren sorrera eta beharrak dira gai honen inguruan lantzen diren aspektuak.
- Bi hauek izan ezik, beste argitaletxe guztiek Euskal Herria eta Autonomia Erkidegoa nahasturik erabiltzen dituzte, batzuetan sinonimo moduan.

5. Ondorio moduan

XX. mendearen hasieran argitaratutako *Lutelestia*, *Sabin Euskalduna* eta *Xabiartxo* moduko liburuetan sasoi horretan nazionalistentzat garrantzizkoak ziren edukiak jorrazten ziren, dela familia, dela baserria eta natura, dela erlijioa edo orduko baloreak. Ez da euskal kultura gai espezifiko moduan lantzen, liburuak eurak dira Euskal Herrian eta euskal kulturaren gainean eraikitakoak, aberria eta abertzaletasunari garrantzia handia emanez, gainera.

Badirudi, liburuan erabiltzen den hizkuntzak badaukala eraginik hizkuntza bera azaltzeko orduan. Euskarari buruzko azalpenetan euskarak hartzen du protagonismoa eta gaztelera gaztelaniak.

1970eko legegaren osteko testuliburuetan euskararen herria da Euskal Herria. Saioka, Bruño, Elkar eta Erein-Ibaizabal dira euskararen jatorria, euskalkiak, elebitasuna, alfabetatzea, ikastolak, zein beste hizkuntza minoritarioak direla azalpenak ematen dituztenak. Sasoi

honetan -1980ko hamarkadan- hasten dira euskararen eta Euskal Herriaren arteko loturak ezabatu nahian.

1990eko legearen eraginez argitaratzen diren testuliburuetan Euskal Herria zein EAE erabiltzen dira euskarari mugak jartzeko. Euskara eta euskal kultura ikuspuntu politikotik jorratuko dira aurrerantzean, lotura soziokulturala gero eta gehiago saihestuz.

EAErako, Nafarroarako edo Iparralderako testuliburuak guztiz desberdinak dira, eta euskarari berari ere ez zaio trataera bera ematen. Salatzekoa dela iruditzen zaigu curriculumaren eskakizunetik at dauden kausengatik erdaraz eta euskaraz argialetxeek bertsio desberdinak egitea, eta euskararen gainean baieztapen desberdinak azaltzea Autonomia Erkidegorako eta Nafarroarako.